



Martxan da Lanku Bekaren bigarren deialdia

Bertsolaritza oinarri duten sorkuntza proiektuak laguntzeko helburuarekin sortu zen 2016an Lanku Beka. Lehen deialdi horretatik harrera ezin hobea izan duen *Erradikalak gara* emanaldia sortu zen. Orain, bigarren ediziorako deialdia zabaldu du Lankuk. Ekainaren 15era arte dago zabalik proposamenak aurkezteko epea.

Bertso edukien sormena saritu asmo duen bekaren bigarren deialdia jarri du abian Lankuk. Horren bitartez, bertsoa oinarri izango duen emanaldi berri baten gidoiarekin, emanaldia sortzeko eta garatzeko laguntza eskaini nahi zaie sortzaileei. Beka deialdian adin nagusikoak diren bertsolariek, gai-jartzaileek edota bertso-eskoletako kideek har dezakete parte.

Bi helburu nagusi ditu Lanku Beka egitasmoak: alde batetik, bertsolaritzan oinarritzen diren emanaldi berrien sorreran laguntzea, eta horrekin batera, Lankuren eta sortzaileen arteko elkarlana sustatzea eta sendotzea.

Ekainaren 15ean amaituko da lanak aurkezteko epea eta horien gainean bost kidez osatutako epaimahai batek erabakiko du bigarren Lanku

Beka nori eman. Lanak baloratzeko orduan ondoko irizpideak izango dituzte kontutan: bertsolaritzak duen lekua; ideiarekin, formatuaren eta gidoiaren originaltasuna; helburu-publikoarengana iristeko gaitasuna; hizkuntza egokitasuna; eta gizarte mailako egokitasuna.

Sari bakarra banatuko da: 3.000 euro jasoko dute sortzaileek proiektua aurrera atera ahal izateko eta urtea amaitu aurretik sortutako emanaldia estreinatu beharko dute.

Lehen uzta arrakastatsua

Bigarren aldia da Lankuk beka deialdia egiten duena; lehena 2016. urtean izan zen. Orduan lau lan aurkeztu ziren eta epaimahaia pozik geratu zen hauen kalitate mailarekin. Ane Labaka

bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzerkilari eta ipuin kontalariak eskuratu zuten beka.

Horren ondorioz *Erradikalak gara* emanaldia sortu zen. Handik hilabete gutxitara aurkeztu zuten ikuskizuna eta orduz geroztik Euskal Herrian barna ibili dira Labaka eta Egizabal emanaldiz emanaldi. Dagoeneko 60 emanaldi inguru egin dituzte eta oraindik ere han eta hemen segitzen dute lehenengo beka lortu zuten bi sortzaileek.



**TXABER
ALTUBE SARRIONANDIA**

Gabiria, 2018-IV-7

Osinalde Sariketako irabazlea

Doinua: Anderea gorarik

Nahiz ta ez garen garaikur handitan hezi
inoiz ez dugu erortzeagatik etsi
ia elkartzen garen berriz bihar-etzi
segi izaten hain betiko hain berezi
ia elkartzen garen berriz bihar-etzi
gaur pasa denak ez du agurrik merezi.



Erradikalak gara emanaldiak eskuratu zuen lehenengo Lanku Beka. //XDZ

“Bideoklip taldeak sortzetik zenbaitetan bertso-eskolak sortu edo indartu dira”

Arabako Bertsozale Elkartek iaz abiatu zuen Bertsoa Bizi Gazte (BBG) egitasmoa. Arabako DBH 3. eta 4. mailetako ikasleei dago bideratuta hezkuntza arautua eta aisialdia uztartzen dituen proiektua. Iaz oso esperientzia aberasgarria izan zen eta ikasturte honetan bigarrena egin da. Maiatzaren 12an Legution egin zen Bertsoa Bizi Gazte Egunarekin eman zaio amaiera bigarren edizioari.

Julen Zulaika Arabako Bertsozale Elkarteko kideak eta egitasmoko arduradunak Bertsoa Bizi Gazte proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Nola sortu zen Bertsoa Bizi Gazte proiektua?

Hainbat galdera pilatu zitzaizkigun: Nola sortu gazte bertso-eskola gehiago? Nola bultzatu gazteak bertso mundura edo ekosistemaren parte izatera? Zer egin gazteek euskararen aldeko hautua egin dezaten? Sormenak zein leku du hor eta bertsoak?

Galdera asko, baina azken batean modu aktiboago batean egin nahi genuen lan gazteekin; izan ere, bertso larritza lehen hezkuntzan lantzen da ia gehienetan eta bertsoarako pausoa, hizkuntza hautua eta antzerakoak nerabezaroan egiten dira. Beraz, guretzat urrun geratzen ziren, ez geneukan nola iritsi modu natural batean eta korapilo horietatik tiraka sortu zen Bertsoa Bizi Gazte sortzeko beharra. Formatuari dagokionez ere, diziplinen arteko nahasketa egin nahi genuen: zerbait irekia, erakargarria eta integratzailea.

Bi urte dira Bertsoa Bizi Gazte abian jarri zenetik eta arrakastatsua izaten ari dela argi dago. Pozik zaudete ekimena izaten ari den harrerarekin?

Egia esan oso pozik gaude. Batetik, harrera oso ona izan delako eta bailara guztietara heldu delako. Bestetik, bideoklip

taldeak sortzetik zenbaitetan bertso-eskolak sortu edo indartu direlako, eta hori garrantzitsua da, ereiteaz gain fruituak ikusten hastea.

Proiektuak bi adar ditu, hezkuntza arautua bata eta lehiaketa bestea. Nola uztartzen dituzue biak?

Lehendabizi lau ordutako murgiltze saioak eskaintzen dizkiegu, gelan bertan egiten ditugunak. Bertan bertsoa ardatz izanik rapa eta musika ere uztartzen ditugu. Ondoren, azken saio bat egiten dugu eskolako aretoan edo gimnasioan.

Behin hau amaituta, bideoklip lehiaketan parte hartzea gonbidatzen ditugu, gustura ibili direnei dinamika horretan elkar-tu eta sakontzeko aukera emanaz. Azkenik, BBG egunean elkartzen ditugu guztiak egun pasa eder batekin.

Aurrera begira, hazten segituko du Bertsoa Bizi Gaztek?

Aurten 1.500 gazterengana iritsi gara hezkuntza aratuan, ez dira beraz ikastetxe asko geratzen dinamika honetatik kanpo: Gasteiztik kanpo institutu guztietan gaude eta Gasteizen ere ia gehienetan. Beraz, ez dut uste proiektuak gehiegi hazteko aukera duenik. Aisialdiaren eremuan, orain arte bideoklip lehiaketak egin ditugu, baina agian bestelako planteamenduak ere egin daitezke: egindako lanak oholtzaratzea antzerkiarekin elkarlanean, disko bat grabatzea... Helburua betetzeko balio badu, zergatik ez? Xede nagusia ondo pasatzea da.



Bigarren urtez antolatu du Bertsoa Bizi Gazte Arabako Bertsozale Elkartek. //XDZ

30 Eskolarteko, eta etorriko direnak

Ekainaren 9an ospatuko da Saran Euskal Herriko Eskolartekojaia. Goizean bat-bateko txapelketaren finala jokatuta, festak segida izango du egun osoko egitarauarekin. Berezia da aurtengoa gainera: 30 urte bete baititu Eskolartekoak.

1989. urtean Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatu zen lehen aldiz, Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan. Ordurako egiten ziren herrialdeetako eskolartekoak eta urte horretan ailegatu zen Euskal Herri osoa hartuko zuen lehenengoa, Ikastolen Elkartearen eskutik. Bertsolaritzaren harrobia izateko sortu zen Eskolartekoa eta Bertsolaritzaren Datu-Basean kontsulta daitekeen lehen edizioko parte-hartzaile zerrendari erreparatuta zeregina ongi bete duela ondoriozta daiteke.

Orduz geroztik, urteroko ezinbesteko hitzordua bihurtu da Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa. Izaera ibiltaria izan du

(Lesaka, Gernika, Gasteiz, Urruña, Mungia, Altsasu, Orio...) eta Ikastolen Elkartearen eta Bertsozale Elkartearen arteko elkarlanari esker gauzatu da.

Sarak hartuko du 30. Euskal Herriko Eskolartekoa. Ekainaren 9an da hitzordua. 11:00etan finala jokatu da herriko trinketean eta horren ostean, bazkaria izango da Lur-Berri aretoan. Bazkalostean ere festak izango du segida, musika eta bertsoekin.

Hasieratik Eskolartekoaren antolatzailea izan den Mikel Mendizabalek jantziko dio txapela irabazleari.



Lehenengo Eskolartekoa Donostian egin zen, 1989. urtean. //Gipuzkoako Bertsozale Elkartea



Iaz ere Sarak hartu zuen Eskolarteko finala.//XDZ



Puntu jarrita

JOSU SANJURJO ALZURI

Ene lehengusu maitea, zenbat aldiz pentsatu ote duzun txikitari eta "garaiz" bertsoan hasi izan bazina, gaur egun bertze segurtasun bat izanen zenukeela oholtza gainean. Nik uste, hasierako beldurrak gairitu dituzula, eta gaur egun edozein esparrutan argi izpi emateko gai den sortzaile bat zarela. Honekin erran nahi dizut, zure talentuaz eta estiloaz oso harro nagoela, beti bilatzen diozulako edozein gairi nik bilatuko ez niokeen ertza.

Egin didazun galderari dagokionez, jendaurrean kantatzeko lotsarik ez dut sekula sentitu. Lehen hezkuntzatik nabil bertsoa deskubritzen eta egunetik egunera maiteminduago nago bertsoaritzaz eta bertsoaritzaz.

Umea nintzanean, jolas hura oparitu zidan bizitzak, eta hartara ez nuen pentsatzen publiko aurrean kantatuko nuenik, ez gaizki geratu nintekeenik. Lau oinak hartu eta bertsoa pentsatzen nuen. Ariketa mental hori egitea lortzen nuenean, pentsatutakoa kanporatzeko beharra sentitzen nuen, egin nuenaz harro nengoelako...nahiz eta emaitza ez zen askotan nahi bezalakoa izaten.

Prozesu natural bat bizitu nuen, eta horren bitartez, jendaurrean kantatzeko aurreiritziak izatera ere ez nintzen iritsi. Haurra nintzen, jolasten zebilen mukizu bat, eta jolas horrek dibertitu egiten ninduen.

Koxkortzen joan nintzen heinean, bertsoak garrantzia izaten jarraitu zuen nire bizitzan. Plazetan kantatzen hasi nintzen, eta momentuan uste nuen gazte izatea abantaila bat zela, akatsak egiteko lizentzia ematen zidalako. Hala ere, urteek hegan egiten dute, eta 24 urte ditudala ohartu naiz. Inoiz ez dut egin benetako bertsolari bat izateko egin behar den lanketa, eta bidegurutze horretan nagoela ohartu naiz. Benetan izan nahi dut bertsolari?

Saioa nire bidegurutze berdintsuan dagoela uste dut, zuk zein bide aukeratuko duzu?

Koplak

Oholtzapetik ekimena, Araban

16 bertsolari ari dira parte hartzen Oholtzapetik ekimeneko lau saioetan eta, horiekin batera, bost gai-jartzaile. Oholtzarik gabe dira saioak eta entzuleek egiten dute epaile lana. Hortik, lau bertsolari sailkatuko dira ekainaren 1ean Murgian jokatu den finalerako.

Poto-Finixa



Udabarriko fasea, azken txanpan

Apirilaren 4an jarri zen martxan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udabarriko fasea, Bilbon. 13 saioen ondoren Abadiñon amaituko da, maiatzaren 26an Errota Kultur Etxean egingo den saioarekin. Udazkenekoa etorriko da gero; horretan 30 bertsolarik kantatuko dute.

www.lanku.eus

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO LIBURUA salgai!

PUBLIZITATEA